

Lehen MUSUA



desclée

ANNA STANISZEWSKI

Lehen MUSUA

ANNA STANISZEWSKI

desclée

© Anna Staniszewski, 2015

© Azaleko eta barruko diseinua – Sourcebooks, Inc., 2015

© Azaleko eta irudia – Michael Heath/Shannon and Associates, 2015

Jatorrizko izenburua: I'm With Cupid

Itzulpena © 2017 Maddalen Amurrio González

© 2017, DESCLÉE DE BROUWER, S.A.

Henao, 6 - Bilbao

Tlf.: 94 423 30 45

www.desclee.eus

www.edesclee.com

Eragotzita dago, legeak ezarritako salbuespenetan izan ezik, obra honen edozein eratako berregintza, komunikazio publiko eta moldaketa, aurrez jabetza intelektualaren titularren baimena eskuratzen ez bada. Eskubide horien urraketa jabetza intelektualaren aurkako delitu bezala har daiteke (Zigor Kodearen 270. artikulua eta hurrengoak). CEDRO erakundeak babesten ditu aipatu eskubide horiek.

ISBN: 978-84-330-2959-1

Legezko gordailua: BI-2096-2017

Inprimatzailea: Itxaropena, S.A.



hitzaurrea



Musu batek hankaz gora jarri zuen dena. Desafio batek, hobeto esan.

Ikasturteko lehen festa zen hura, eta institutuko bigarren mailako ikasle gehienak bertan izango omen ziren. Lena Cheetoz beteriko kaiku baten inguruan zebilen, artega, lagunak komunetik itzultzeko zain. Zenbat denbora behar zuten, bada, “purpurina-larrialdi” bat konpontzeko?

Ping-pong mahaitik gertu Marcus Torelli begira ari zitzaiola jabetu zen orduantxe, irribarre lotsatia aurpegian. Une batez, harekin hitz egitea bururatu zitzaion; izan ere, ezin hobeto moldatu ziren aurreko udaberrian matematikako proiektua egiten. Eskuetan zeraman liburu zarpailtsuari erreparatu zion ondoren Lenak, bai eta burua makurtu ere besteak, ekintza erreflexua bailitzan. Liburu batek ez zuen biderik ematen festa batean sozializatzeko...

Bat-batean, Connie Reynoldsek txalo egin zuen, denon arreta erakartzeko asmoz.

—Hurbildu zaitezte, “Ausardia ala ausardian” jolasteko unea da eta! —esan zuen barrez, gonbidatuak zur eta lur begira zituela—. Jolas horren “egia” parteak ez du ezertarako balio —argitu zuen bere lehen biktima hautatu aurretik. Marcusengan iltzatu zituen begiak, harrapakin erraza zelakoan.

—Zu! Ezetz ausartu Lena Perrisi bost segundoz musu ematen!

Kontrako eztarritik sartu baino lehen, Lenak ahoan zuen Cheetoa irenstea lortu zuen. Marcus begira zuen berriz, guztiz ikaraturik oraingoan.

—Zer arraio...? —bota zuen Marcusek, bere senera etorri gabe. Liburua poltsikoan sartu eta aterantz jo zuen. Ihes egin behar al zuen kakati halakoak?

—Egin esandakoa —agindu zuen Conniek—, edo komuna miazkatu beharko duzue.

Txutxu-mutxuka hasi ziren besteak. Komuna milikatzea behea jotzea zen, baina Connie Reynoldsi ezetz esatea are txarragoa zen, dudarik gabe. Lenak zalantza egin zuen. Brent Adamsoni eman nahi zion lehen musua, ezpain eder-ederrak zituen eta. Marcus jatorra zen oso, baita galanta ere, baina sudur handi samarra zuen. Beharbada oztopo egingo zien musu emateko.

—Gogoan izan, bost segundo! —ebatzi zuen anfitrionak. Ez bat eta ez bi, armairu barruan sartu zituen Lena eta Marcus.

Atea danbateko batez itxi eta bakarrik geratu zen bikotea. Oreka erdietsi nahian edo, Lena tinko jarri zen, begiak

itxita. Aldizkarietan irakurri zuenaren arabera, nahitaezkoa zen begiak ixtea musu emateko.

Marcusek, bere aldetik, Lenari musu emateko ideia zerabilen buruan. Egia esan, elkarrekin ibil zitezen eskatzeko asmotan joan zen festara; damu zuen joan den ikasturtean ausartu ez izana, matematikako proiektua egin zutenean. Ordura arte, baina, ping-pong mahaiaren atzean ezkutatuta egon zen, ikararren ikaraz. Aurrean zuen Lena, gertu-gertu.

—Zera... nahi al duzu...? —galdegin zuen Marcusek, erabat lotsatuta. Buruak ospa egiteko erregutzen zion, lehoiaren presentziaz ohartutako harrapakina balitz bezala.

—Ondo da —erantzun zuen berak leunki.

Arnasa hartu, begiak itxi eta aurpegia aurreratu zuen Marcusek. Hasieran, sudurrek tupust egin zuten. Ondoren, kokotsek. Gezurra badirudi ere, belarriek ere egin zuten talka. Azkenean, ezpaineek elkar aurkitu zuten...

Energia-bultzada batek Marcusen gorputza astindu zuen, goitik behera, burugainetik orporaino. Ezpainak banantzean, elektrizitatez beterik zegoen airea haien inguruan. Une batez, oinetakoei kea zeriela ere iruditu zitzaion Marcusi.

Norbaitek atea ireki zuen supituan.

—Zer moduz, bikotetxo? —esan zuen Conniek.

Marcusek Lenari so egin zion; hari begira zegoen, irribarretsu. Ez zuten txintik ere esan. Dibertimendua bukatu zelakoan, beste norbait bilatu zuen Conniek jendartean.

—Nick! Ezetz Brittany musukatu!

Marcus eta Lena festan barrena ibili ziren, ezti gozotan, eskuak ukitzen ia. Zerbait arraro igarri zuten biek, hala ere. Lenak musu emateari egotzi zion sentipen hura. Marcusek, ordea, bion artean zerbait berri jaio zelako itxaropenari.

Batek ere ez zuen asmatu, noski.

➤ 1. kapitulua ➡



Lehenago, egun hartan.

Marcus zinemaren aurrean gelditu zen. Liburua poltsikoan sartu zuen, ondo gordeta egon zedin.

1950eko hamarkadako amodio-liburuxka zen, aitonak emana, horixkatutako orriz josirikoa. Idazmahaian gorde ohi zuen Marcusek, baina harekin eraman nahi izan zuen egun horretan, gaueko festarako zortea ekar zekion.

Izan ere, mirari bat beharko zuen Lena Perris berarekin ibil zedin. Lagunekin hizketan entzun zuen Lena korrido-reetan, Connie Reynoldsen festari buruz. Ezin zuen, hortaz, hutsik egin. Ergeltzat hartuko zuten festara bakarrik joanez gero, baina Marcusen lagunik onena (eta bakarra) Indiara itzuli zenetik, ez zuen beste erremediorik. Lenari elkarrekin ibil zitezen eskatzeko ausardia bilduko balu, beharbada mereziko zuen trantzeak. Baina, lehenbizi, egiteko garrantzitsu bat zuen.

Eraikin zaharrea barneratu zen. Belus-antzeko eserleku zakarrak eduki ohi zituzten horietakoa zen zinema. Gurinetan bustitako krispeten usainak oroitzapen gozoak ekarri zizkion: aitak, behinola, Disneyren azken filma ikustera eramane zituen arreba eta Marcus. Barrez lehertzen ari ziren hirurak, krispetak bata bestearen ahoan saskiratzen. Arreba alaba eredugarri eta Marcus ardi galdu bihurtu baino lehen izan zen hori guztia.

Oroitzapenok burutik baztertu eta harrera-gela aztertu zuen, erne. Handik gutxira, salmahaiaren atzean ikusi zuen bere helburua, mugikorreko mezua berriro irakurri beharrik gabe. Christopher Costa, 18 urte. Begi serioak zituen mutikoak, eta sorbalda eroriak, bizkarrean zama handia eramango balu bezala. Garbi ikusi zuen Marcusek laguntza behar zuela; izan ere, aura grisaxka zuen gazteak buru gainean, Marcusek eta ez beste inork ikus zezakeena. Bakardadea ere nabaritu zekiokeen.

Christopher kankarro bat freskagarri zerbitzatzen ari zela, ingurura begiratu zuen Marcusek, norekin lotuko zuen erabaki nahian. Bat-batean, neska ilehori bat ikusi zuen salmahaiaren beste aldean, eta ez zuen dudarik egin. Christopher baino zertxobait gazteagoa izango zen, baita alaiagoa ere; ondo baino hobeto emango zuten elkarrekin. Une hartan, Marcus salmahaiaren inguruan kuxkuxeatzen ikusi omen zuen Christopherrek.

—Zer nahi duzu? —galdetu zion zakarki.

Marcus ikaratuta gelditu zen, ez baitzekien halakoetan nola jokatu. Ez zegoen prest bere helburuarekin berba egiteko. Iaioa zen inguruan kamuflatzen, ez nabarmentzen, alegia. Horra bere lanaren gakoa. Zalantza egin zuen memento batez.

—Gominolak —bota zuen mintzamina berreskuratu zue-
nean. Hizketan jarraitu zuen, bat-bateko berritsukeriak hartuta
bezala—. Nire aitonak oso gustuko ditu.

—Aitonarekin etorri zara? —sartu zen neskato ilehoria.
Ezpainzapi batzuk hartzera hurbildu zitzaien, agidanez—. Bai
ondo!

Marcus gorritzen hasi zen. Beti ibili behar zuen bazterrak
nahasten.

—Ez, ez... egia esan, adinekoentzako egoitzan dago duela
astebete, eta ez dut aspaldi ikusi; izan ere...

Eta are gehiago nahaspilatu baino lehen, Marcusen telefo-
noa dar-dar egiten hasi zen poltsikoan: iritsi zen unea. Ingurura
begiratu zuen beste behin ere, inor gertu ez zegoela ziurtatzeko.
Dena den, gidaliburuak zioen ezin zuela inork ikusi “ekinean”
zegoenean. Hala zen, Marcus bertan zegoela ahaztu ei baitzuen
Christopherrek. Ezerezera begira zegoen, gozokiak eskuetan
artean.

Marcusek energia bildu bezain azkar, hatz-mamiak gorri-
gorri jarri zitzaizkion. Bere bosgarren lana bazen ere, beldur
zen argiak ez ote zizkion atzamarrak erreko. Aitzitik, inurri-
dura epela sentitu zuen ermamietan. Christopher aldentzen

hasia zen eta, ez bat eta ez bi, gaztearen besoa ukitu zuen esku gorrinarekin, energiak atzamarretatik ihes egin zio-larik.

Argi gorria amatatzean, eskua kendu zuen Marcusek, zora-biaturik. Christopher, berriz, geldi-geldirik geratu zen tarte batez, estatua bailitzan. Birritan kliskatu zituen begiak, eta mahaiaren amaieran josi zituen. Azkenean, haren begiek eta neska ilehoriarenek topo egin zuten.

—Kaixo —esan zuen Christopherrek, begiak ezin itzuliz.

—Kaixo —erantzun zuen neskak, eta harengana hurbildu zen.

Marcusek irribarre egin zuen bere golkorako, haien arteko txinparten lekuko pribilegiatu. Bikoteei hasierako txinka ematea zen Marcusen lana, baina haien esku zegoen horrekin zerbait eder sortzea. Edozelan ere, bihozkada ona zuen orduko hartan. Han geratu nahi zuen hurrena zer gertatuko zen ikusteko, baina Connie Reynoldsen festara joan behar zuen. Amaitutzat eman zezakeen lana. Gominolen truke ordaindu beharrekoa utzi eta alde egin zuen. Zorte apur batekin, bera ere amodiotan ibiliko zen laster.



Lena bizikletaz joan zen ospitalera. Iritsitakoan, nagusiak bidalitako mezua irakurri zuen berriz ere: Odessa Albright, 94 urte. Whitmore Ospitalea, 301. gela. Arratsaldeko 7:26.

Ordu erdi zuen lana egin eta Connie Reynoldsen festara joateko. Lagunak zain izango zituen bertan. Halako ekitaldien oso zale ez bazen ere, orduko hartan festara joateko irrikaz zegoen Lena. Izan ere, aukera izango zuen “Hamalau urte bete baino lehen egin beharrekoak” zeritzon zerrendatik zerbait ezabatzeke.

Bizikletari giltzarrapoa jarritakoan, ospitaleko ate birakariak gurutzatu eta igogailurantz jo zuen. Hirugarren solairuko bottoa sakatzeaz bat, mugikorraren dardara sentitu zuen sakelan. Abigailen mezua zen: Nola joango zara jantzita festara?

Lenak soinean zeramatzan galtza bakeroei eta kamiseta margulduari erreparatu zien. Beharbada dotoreago joan beharko zuen Brent Adamsonak begiz jo eta musu emango bazion. Jada ez zegoen zer eginik, baina. Di-da batean erantzun zuen: Beti bezalaxe. Zu?

Igogailua gelditu bezain pronto, korridorerantz abiatu zen Lena, atearen bila. Jende gehienak ospitaleak gorroto zituen, baina berari oso lasaigarriak iruditzen zitzaizkion. Leku isilak ziren, seguruak, eta gaixoz gainezka egon arren, harat-honat zebiltzan medikuak eta erizainak zeuden erruz.

301. gelara heltzean, barrura begiratu zuen. Adineko emakume bat ikusi zuen ohean, lo seko, inguruan makina ugari zituela kantari. Bakarrik bazegoen ere, lore sorta eta txartel mordoa ikusi zituen Lenak. Antza zenez, bizitza luzea izan zuen Odessa Albrightek, senidez eta lagunez betea. Bere bidea egiteko garaia zen.

Lenaren telefonoak berriro egin zuen dar-dar. Soineko bat eramango dut, ihardetsi zuen Abigailek. Ez al da dotoreegia izango? Lagundu!

Irribarrez, telefonoa gorde zuen Lenak gelan barneratu baino lehen. Ohera hurbiltzean, lasaitu ederra hartu zuen andrea lotan ikusi zuenean, aurreko hiru lanetan bezalatsu.

Alarma leunak jo zuen telefonoan, unea iritsi zen seinale. Arnasa sakon hartu eta energia bildu zuen. Berehala, more-more jarri ziren Lenaren atzamarrak. Emakumearen ariman jarri zuen arreta guztia. Segituan, argi-puntutxo distiratsu bat agertu zen, ilunabarreko eguzki-izpien antzekoa. Andrearen beso ahula ukitzerakoan, energia askatu zen, berriz desagertze-
ra arte. Istantean, baretasuna sentitu zuen Lenak, orduraino bizitzari gogor heldu zion arima aske baitzen, noranahi zihoala ere.

Eskua kendu zuen, jardun osteko zorabioak hartuta, eta atzera egin zuen, aterantz, ondo baino hobeto baitzekien bi minutu baino ez zituela andreak azken arnasak eman arte. Nagusiak zin egin zion ez zuela zertan heriotza ikusi, nahi ez bazuen, bederen.

Lasterka atera zen gelatik, oraindik ere akituta. Deblauki, tristeziak Lenaren bihotza hartu zuen, baina gogor egin zion aurka sentipen horri. Heriotza etsigarria izan zitekeen, noski, baina bizitzaren parte zen. Joan aurretik, hilurreneko pazienteak zaintzen ibili zen Lenaren ama. Horrek bultzatuta, akaso, heriotzaren eta doluaren berri eman zion alabari. Jende

gehienak, tamalez, ez zien umeei halakorik irakasten. Telefonoak dar-dar egin zuen beste behin.

Hayleighek dio inork ez diola arropari erreparatuko purpurina nahikoa jarritz gero.

Purpurinarik ez! Erantzun zuen Lenak, ahapeka irri eginez. Azkeneko aldian, beren lagun Hayleighek burutik oinetara ipini zuen purpurina, eta arrasto distiratsua utzi zuen Lenaren etxean. Haren txakur gaixoak ere zenbait egunez izan zuen brillantina ilean.

Arrapaladan, ospitaletik atera eta bizikletaren bila joan zen Lena. Arnasa hartu zuen, lasaiturik, jakinda lana bukatu zuela. Dibertitzeko garaia zen orain, musu emateko unea, hain zuzen ere. Ziur zegoen horrek mugarria jarriko zuela.